

Iru illabetekako batzarra.-Ikastola-idaztiak.-Urrengo urterako asmoak.-Besterik.

Gipuzko-Aldundi yauregian bildu da, oi-bezela, Eusko-Ikaskuntza'ko Bazkintza Iraunkorra dalakoa. Elortza yauna eseri san buru; aren inguruan, urrengo batzarkideok; Jaime, Crueta, Armendariz, Eguren, Basterretxea, Arozena, Vilallonga, Etxegarai, Zaragueta, Barandiaran, Agirre (Y.L.), Donostia Aba, Fuentes, Eleta ta Apraiz. Etorri-eziñekoa Arantzadi'k, Uria'k, Ladariaga'k, Lendibil'ek, Agirre (Y)'k, Chalbaud'ek eta Sandres'ek gaztigatu zuten.

Naparroa'ko Aldundi-ordekoaren izenez Jaime yauna lembizikoz baitzetorren, Elortza lendakariak abegi-enezkoak egin zizkion, eta ark jatorri erantzun, erderaz ta euskeraz, bere ta Naparroaren laguntza sutsua eskeñiaz.

Len-Irakaskintza-Batzordekoak irarri-erazitako aur-idaztiak ikusi zituten urrena batzarkideak. Idazti oien izenak; Txomin Ikasle (gipuzkeraz ta bizkaieraz), Umearen Laguna ta Martin Txilibitu, guziek irudi politez jantziak. Batzarrearen erabakiz Txomin Ikasle ta Umearen Laguna laurleko banatan salgai jartzen dira; berrogeitamarretik gora artzekotan, iruna erreal; banakakoan ere iruna erreal, Eusko-Ikaskuntza'ko bazkideentzat. Martin Txilibitu, guzientzat zakurraundian.

Urrena. Bizkaia-aldundiko Abelgintzakikoan buru dagon arziniega yaunari Eusko-Ikaskuntza'k egotzi baitzion B. C. G. deritzan birieri-aurkazo txertoa abelgorriari emanaz aren ondorenez oartzeko; yaun orrek bere lana aurkeztu du, ta batzarreak atsegiñez arturik, zorion esatea erabakitzen du. Baita ere, yaun orrek eralgiak ordaintzeko, ta aren lana argitaratzea pozik ikusiko lukela.

Gerokoan, zenbait idazki irakurri ziran, ta aiei zer-erantzuna erabaki. Lizarra (Estella)'n yarri bear duten euskera-ikastaldari laguntzea. Nekazaritzari buruz España'ko lege-batzarrearen asmoetan uri bereko Nekazari-Batzak egindako carpene aintzakotzat artu, ta Eusko-aldun guziei berri-emaitea. Ta abar.

Azken-urteko diru-gorabera onetsi zan. Euskal-idazti irarketa ta Eusko-Arudi edo Estatutuekiko yon etorriak yasoen gañezkak oeralgi-bearra ekarri dute. Argatik, urrengo urtea koska aundiaz asi bear; alar guztiaz ere, euskal-irakaskintzarekikoa atzeratu ez ditekela-ta, idazti geiago ateratzeko laguntza bizia Leen-Irakaskintza-Batzordeari agindu zitzaion. Gañera, euskotar on guziei dei dagiegu lan ontarako beren apurra ekarri dezaten; gure aurrak ez al-ditute euskal-ogirik gabe utzi naiko.

Urrengo urteko Uda-Ikastaldiak Donostia'n asiko dira, oi bezela; Iruña'n ordea bukatuko, Irallaren len-arabostaldian zuzenistia gai nagusitzat arturik. Orrekin naste, euskal-azterketak, elebitza-agerketak eta Euskal-Bazkun-Batzak sumatu ditun beste zenbait egiketa. Baita ere Eusko-Ikaskuntzako legezko batzarre orokarrak an eta ordun egingo dira. Bazkide guziei batzarkide berrien auteskundcrako erreztasuna eman-naiez asmo berri bat eratzen ari da Eusko-Ikaskuntza, ta ordurako indartu nai luke.

Bazkunaren barne-eralguntza berritzea, Europa'n barrera Euskadi'ren berri zabaldu lezaken idazti bat nola antela, Paris'ko Irakasturi edo Ciudad Universitaria dalaknak eusko-ikasleei egingo licken abegi maitekor berezia... Orra, laburka, ikututako beste zenbait gaien izenak.

